

EZ ZAIKAK SARTZEN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

NOELIAk eta **ALEX**ek ikasle ohien afaria dute. Ilusio handia egiten die institutuko ikaskide zaharrek elkartzeak. Bat-batean, badirudi **NOELIA**k ilusioa galdu duela.

NOELIA: (Haserre, arropa-jantziari eutsita, beste gela batean dagoen senarrari esaten dio) Hotzean, hotzean, hotzean... lixibak hotzean egiten dituk. Behin bat egiten duk eta... hara!, beroan egiten duk. Ez didak entzuten, laztana, ez didak entzuten. Lixibak hotzean egiten dituk. Begira, dena hartu egin duk. Galtza hauek lehenago sartzen zitzaizkidan, kamiseta hau sartu egiten zitzaidan, orratz gorriak sartu egiten zitzaizkidan... eta orain ez zaizkidan sartzen. Ez zaidak ezer sartzen. Dena txikia. Erosten diagun hurrengo garbigailuak ez dik programa berorik izango -merkeenetarikoa izango duk-horrela ezin izango duk kakaztu. Entzuten didak? Horrela jartzen nauk arropa honi maitasun handia nioalako, zer gertatzen duk! Bai, maite nitian! Eta ez diat arropa berria erosi nahi! Arropa hau nahi diat! Alex, ez diat joan nahi. Ez diat joan nahi. Ez noak. Ni ez noak. Bihar zinemara noak, Amenabarrena estreinatutzen diate. Bai, ikusiko diat. Noiztik nabilek filma hori itxaroten? Krispetak erosten ditiat eta ale, filma ikustera. Joan hadi hi dantzara nahi baduk. Ni ez noak. Hire ikasturtea ere bazuan, eh. Facebook madarikatua. Hogeitaz urtez ikusi gabe egon banauk, zerbaitegatik izango duk. Guztiak operatuta. Ikusi dituk argazkiak? Ni ez noak. Eta ispilu hau, arraioa, erdi jaitsita zagok, berriz ere jaitsi duk, Alex, begira, kopatuta zagok, ze nazka, dena hausten duk etxe honetan. (**SENARRAK** zerbait esan dio) Erresistentzia? Zer duk erresistentzia bat? Izan ere, erresistentzia hautsita badik, nahita nahiez, arropa-garbigailua bota eta beste bat erosten diagu, merkeenetariko bat, hotzean soilik garbitzen dikena, berriro kakaztu dezaan... Begira (Arropa-jantzira bueltatuz), ze pena! Perfektua neukaan...

OHARRAK: **NOELIA** errealitatea ukatzen ari da. Garbigailuak ezin izan dio arropa hartu, garbigailuak ez duelako berotan garbitzen. **ALEX**ek esan dio: garbigailuak erresistentzia hautsita du; ezin du beroan garbitu. Baina **NOELIA**k ez du entzuten. Ez du entzun nahi. Itsututa dago. Lodi ikusten du bere burua eta errua garbigailuari botatzen dio. **ALEX**i botatzen dio. Jende guztiari botatzen dio.

Ele txera
Hondatuak zabaldiaz



EZ ZAIKAK SARTZEN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Gertatzen dena da izu-eraso bat izaten ari dela: Bere ikaskide ohiak primeran ikusten dira eta bera, ez. Eta ikasle ohien afaria gau horretan bertan da.

*Bakarrizketa komikoa da. **ALEX**ekin duen bidegabekeria nabaritu behar da. Hor dago grazia. Zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta segurtasun gabezia gehiago ditu*

Ele txera
Munduko zabaldua

